



LEGEBILTZAR TALDEEN ERREGIMENA

ARAUTEGIA

Eusko Legebiltzarraren erregelamendua

28 artikulua

1. Lokal eta baliabide material eta pertsonalak jarriko ditu Legebiltzarrak legebiltzar-taldeen eskura, beren eginkizunetan jardun dezaten. Orobat, bi diru-laguntza izendatuko dizkie Legebiltzarreko aurrekontuaren kargura, bata finkoa eta berdina talde bakoitzarentzat, eta bestea aldakorra, talde bakoitzak duen kide kopuruaren arabera. Erregelamendu eta Gobernurako Batzordeak erabakiko ditu diru kopuruak.

Legebiltzarreko Mahaiari eskatu ahal izango diote legebiltzar-taldeek haien eginkizunekin zerikusirik duten gaien buruzko txosten juridikoak egin ditzatela Legebiltzarreko zerbitzu juridikoek.

2. Talde Mistoari dagokion diru-laguntza finkoa legegintzaldi bakoitzaren hasieran ezarriko du Mahaiak. Orobat, taldeko kide kopurua aldatzearen ondorioz beharrezko den guztietan egokituko du zenbatekoa. Mahaiak Talde Mistoaren proposamenak ezagutu ondoren hartuko ditu erabaki horiek.

Legebiltzar-taldeetako teknikari-administrariaren kopurua talde bakoitzak Legebiltzarrean duen ordezkariaren arabera izango da. Mahaiak hartuko du gai horri buruzko erabakia, Bozeramaileen Batzordeak gaia adostu ondoren.

3. Lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita eta Bozeramaileen Batzordearen iritzia entzunda, artikuluko honetako 1. paragrafoan ezarritako diru-laguntzak etetea erabaki ahal izango du beren eginbeharrak behin eta berriro betegabe uzten dituzten legebiltzar-taldeei, haien iritzia entzun eta gero.

